



# OPOSAKETETARAKO LANPOSTUAK 614 PLAZA (HE2rik GABEKO 62)

Jakina denez, joan den urriaren 2an, Hezkuntza Sailak datorren ikasturterako LEP-OPEaren proposamena egin zuen. Hau bi eskaintza ezberdinetan banatu zen:

- 550 plazen eskaintza eta horietatik %10 (56) HE2rik gabekoak.
- 850 plazen eskaintza eta horietatik %22 (190) HE2rik gabekoak.

Bi proposamen horien artean “aukeratu” behar omen genuen: euskaldundu gabeko 56 funtzionario berri ala 190.

Gaur egungo errealitatearen aitzakia erabili zuten berriro ere; euskalduntzeko prozesuan bagaude, etorkizuneko egoera ez da gaur egun daukaguna izango, gaurko matrikulazioa ez baita etorkizuneko izango. Gaur egungo errealitateari ematen zaion garrantzia ez al da Hezkuntza Sailak hezkuntza sistema aldatu eta euskalduntzeko beharrezkoak diren plangintzak sortu, garatu eta ezartzeko duen ezintasun eta koldarkeria estaltzeko aitzakia? Eusko Alkartasunak ba al du Lanbide Heziketa eta Lan Mundua euskalduntzeko benetako asmorik?

Funtzionarioa ez da 2 edo 5 urtetarako langilea, beraz, klaseak orain eta etorkizunean emateko gai izan behar du. Hori bermatu dezaketen bakarrak irakasle elebidunak dira, hau da, HE2 dutenak. Hezkuntza sistemak jasan beharreko hipotekak %10koa ala %22koa izan behar duen aukeratu behar al dugu? Eta Lanbide Heziketaren matrikulazioa euskalduntzen denean? Zer egingo dute euskaldundu gabe daudelako klaserik emateko aukerarik izango ez duten irakasleekin? Gogoratu, Hezkuntza Sailaren datuen arabera dagoeneko 329 irakasleren gaingastua jasaten ari garela. 329 irakasle daude euskara ez jakiteagatik lanik gabe soldata osoa jasoz. Benetan lotsagarria! Zenbat irakasleren gaingastuaren zama ekonomikoa jasan behar du Hezkuntza Saila eta jendarte honek? HE2rik gabeko plazak euskalduntze plan orokor baten ostean atera beharko lirakeke, atera beharko balira behinik behin.

Araudia aipatu zuten, lanpostuen Hizkuntza Eskakizunak 1993ko dekretuaren bidez arautzen dira. Deigarria da 1993ko “errealitateari” egokitutako dekretu batek oraindik ere euskarari topeak jartzea. Hamabost urte pasatu dira eta dekretu hau zaharkituta dago, jendarte aldatu da, baita eskolaren egoera ere. Bada garaia aurrera pausoak eman eta dekretu hau oraingo eta etorkizuneko beharren “errealitatera” egokitzeko. Hizkuntzen dekretu hau, beste hipoteka bat besterik ez baita.

Azkenik, atzoko batzarrean, helarazitako proposamena:

- 614 plazen eskaintza eta horietatik %10 (62) HE2rik gabekoak.

## “PIZGARRIAK”

Pizgarrien eta ikastetxeetan sortu den egonezinari konponbidea eman nahian, batzar baten eskaera egin genuen atzo. Eskaera honi Hezkuntza Sailak baietz erantzun zion.



<b>OPOSAKETETARAKO PLAZAK</b>				
KOD.	IRAKASGAIA	EAE		GUZTIRA
		BAK. KOP.		BAK. KOP.
		HE 1	HE 2	
0103	INGELERA	0	63	63
0106	EUSKARA	0	60	60
0124	GEOGRAFIA ETA HISTORIA	0	70	70
0134	GAZTELANIA	0	32	32
0202	FISIKA ETA KIMIKA	0	24	24
0224	MATEMATIKA	0	20	20
0237	INFORMATIKA	0	25	25
0255	BIOLOGIA ETA GEOLOGIA	0	18	18
0256	PSIKOLOGIA ETA PEDAGOGIA	0	24	24
0327	GORPUTZ HEZKUNTZA	0	28	28
0401	TEKNOLOGIA	0	45	45
0750	EOI INGELERA HEO	0	19	19
0751	EOI FRANTSESA HEO	2	10	12
0753	EOI EUSKARA HEO	0	14	14
1506	ORG. PROC. MANT. DE VEHICULOS	4	5	9
1507	CONST. CIV. Y EDIF.	6	3	9
1508	ORG. PROY. FABR. MECÁNICA	2	14	18
1509	ORG. PROY. SIST. ENERGÉTICOS	7	5	12
1510	SIST. ELECTROT. Y AUTOMÁTICOS	0	15	15
1519	PROCESOS SANITARIOS	4	5	9
1521	INTERVENCIÓN SOCIOCOMUNITARIA	2	8	10
1549	INST. MANT. EQ. TERM. FLUIDOS	7	7	14
1550	INSTALACIONES ELECTROTÉCNICAS	4	12	16
1552	COCINA Y PASTELERÍA	9	3	12
1561	SOLDADURA	5	4	9
1567	PROCED. SANIT. Y ASIST.	7	9	16
1568	SERVICIOS A LA COMUNIDAD	3	10	13
<b>GUZTIRA</b>		<b>62</b>	<b>552</b>	<b>614</b>

<http://www.labsindikatua.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

**Araban**

Fermin Lasuen, 13 behea  
01001 Gasteiz  
Telf.: 945 259 544  
Faxa.: 945 258 039  
irakaskuntzaaraba@  
labsindikatua.org

**Bizkaian**

Rekalde zumarkalea, 62 behea  
48010 Bilbo  
Telf.: 944 706 900  
Faxa.: 944 706 909  
irakaskuntzabizkaia@  
labsindikatua.org

**Gipuzkoan**

San Bladi 1, behea  
20013 Donostia  
Telf.: 943 458 562  
Faxa.: 943 456 645  
irakaskuntzagipuzkoa@  
labsindikatua.org

**Nafarroan**

Martzelo Zelaieta 75, 2-A  
31014 Iruñea  
Telf.: 948 382 474  
Faxa.: 948 221 276  
irakaskuntzanafarroa@  
labsindikatua.org

**Iparraldean**

7 Coursis Karrika  
64100 Baiona  
Telf.: 0559595020  
Faxa.: 0559595021  
baiona@  
labsindikatua.org